

Yorick liburu denda Paperezko antzerkiaren habia

Bilboko San Francisco kalean dago Yorick liburu denda. Bertara gerturatu eta antzerkiarekin loturiko argitalpenak topatzen ahal ditu bisitariak, izan testua ala teoria, arte eszenikoetako ezein arlotan. Ezohiko eskaintza da Yorickena, antzerkia gutxi ikusi eta are gutxiago argitaratu eta irakurtzen den garaiotan.

OIER GUILLAN

Argazkiak: Iñigo Azkona

EZEIN LIBURU DENDATAN SARTU eta kuxkuxean ibiltzea gogoko duenari harrituko zaio agian, apalak aztertzen hasi eta liburu denak antzerkiari buruzkoak direla konturatzean. Ez da ohikoa liburu denda espezializatuak existitzea gurean, beste herrialde batzuetako hiriburu handiagoetan ez bezala, eta are gutxiago antzerkiari buruzkoak.

Yoricken kasua ezin liteke ulertu Carlos Gilek zuzentzen duen *Artez* aldizkariaren haritik etorritako beste proiektuei arretaz eta osotasunean erreparatu gabe, aipatu aldizkaria eta liburu dendaz gain Artezblai argitaletxea eta Interneten eskaintzen dituzten zerbitzu osagarriak ere martxan baitituzte. Adar ugari dituen proiektu horren adierazle da hain zuzen ere San Francisco kaleko espazioa: Yorick antzokia balitz, oihalaren bestaldera joanez gero *Artez* aldizkariako lantaldea topatuko luke bisitariak, erredakzioan lanean.

Borja Relañok eta Ainara Gerrikabeitiak egin digute harrera. Eskariak jaso berri dituzte eta liburuak pilatzen dira bazterretan, paperezko dorreak sortuz, denda txikiaren goxotasuna areagotuz. Horrenbeste antzerki liburu ote dago? Eta galdera horren haritik, bada liburu horiek guztiak irakurri, edo are, erosiko dituenik?

Yorick bisitatzen duen balizko eroslea irudikatzen saiatu gara segituan. “Jendea ez dator hona beste liburu denda batera doan moduan. Ez da kuxkuxean ibiltzera sartzen, datorrenak badaki zertara datorren eta begiratu ahal du, baina normalean badaki zer erosi nahi duen ehuneko oso handi batean”.



Apaletako tituluak begiratzeko hasi eta gaztelaniaz antzerkiaren inguruan kalera-tzen den gehiena topatzen ahal da. Euskaraz antzerkia ez da apenas argitaratzen, kasu bakan batzuk kenduta: Artezblai argitaletxeak berak kaleratzen dituenak eta literatura lehiaketaren bidetik etorritakoak daude batik bat. Gerrikabeitiak aipatu duenez Espainiako argitaletxeak dira euren eskaintzaren oinarria, baina hala ere badaude Hego Amerikatik ekarritako liburuak ere. Antzerkiarekin zerikusia duen guztiak du lekua apal hauetan: “Testuak, teoria, praktika, umeentzako zer edo zer, txotxongiloak, zirkua, magia pixkatxo bat...”.

Liburu denda horren espezializazioa izanik, bertaratzeko den jendea erosle soilak baino zer edo zer gehiago izan ohi da. “Jendeak askotan eskatzen ditu existitzen ez diren gauzak, argitaratu ez direnak. Normalean existitzen diren antzerki testuak dira, norbaitek idatzi eta antzeztua izan den obra bat, baina gero liburu bihurtu ez dena. Beste askok ez ditugun liburuak eskatzen dizkigute, badirenik ere enteratu ez garelako; haien bitartez eza-gutzen ditugu liburu batzuk, bezeroak laguntzen du liburu denda osatzen”.

Antzerki testuen kasuan liburuak erosten duenak helburu diferenteak izan ditzake. Relanoek gustuko du antzerkia irakurtzea baina azaldu duenez, jende askok muntaia bat buruan duelako irakurtzen du, horretarako testu bat behar duelako ezaugarri jakin batzuekin. “Baina bada jende asko ere antzerkia irakurtzera datorrena, beren buruan errepresentazioa egitera”. Gerrikabeitiak gehitu du muntatzeko asmoa duenak gaur egungo obrak gura izaten dituela eta normalean bizirik dauden egileak. “Irakurtzeko zaletasuna daukanak edozer erosten du, Shakespeare izan edo Angelica Liddell. Baditugu klasikoak baina gutxi saltzen dira, Shakespeare edozein dendatan eros dezakezu, eta bestelakoak berriz ez”.

Teknologia berrien eskutik

Bai aldizkariaren jardunean bai liburu dendarenean Internet bidez albisteak zabaltzeko edo liburuak erosi ahal izateko aukera biziki

landu dute azken urteotan, oso gutxi baitira oro har antzerkian espezializaturiko erreferentziak. Relanoek aipatu duenez Espainiako Estatuan pare bat liburu denda dago beraiek dakitenez, Madrilen eta Bartzelonan. “Badaude beste liburu denda batzuk antzerkiari eskainitako sail ona daukatenak, baina gutxi”. Bezeroen jatorriaz Gerrikabeitiak dio gutxi etortzen direla Euskal Herrietik kanpo, baina webgunetik erosten dutela. “Dendara bertara Bilboko edo inguruko jendea dator, eta Euskal Herriko jendeak ere orokorrean Internetetik erosten du. Askotan Donostiatik etortzea baino merkeago ateratzen da saretik eskatzea”.

Webgunean eskaintzen dena dendan ere edukitzen saiatzen dira beti, liburuak lortzeko aukera arindu eta zerbitzua bizkortzearen. Relanoek dioenez katalogoa eta webgunea parean mantentzen saiatzen dira. “Webgunetik eskatzen direnak dendatik kentzen ditugu, ahalik eta ari-nenen bidaltzeko”. Gerrikabeitiak ere webgunearen garrantzia azpimarratu du: “Ez dugu saltzen ez daukagunik baina liburu dendaren oinarria webgunea da, hemen ez baitago antzerkiarenganako horrenbesteko zaletasunik”.

Lehenik aldizkaria sortu zen, gero argitaletxea, hirugarrenik webgunea eta laugarrenik liburu denda. “Hilabetekaria izanik badaude egunero beste albiste asko guk aldizkarian ezin ditugunak sartu, eta pentsatzen egon ginen lekuri proposena webgunea zela, bat-batekotasunagatik”. Orduan sortu zen ataria eta handik gutxira –ia batera– argitaletxea, egun 30 testu inguru eta lau bilduma dituen. “Esperantza nahikoa dugu, gure energia asko dago horretan, eta diru asko ere bai. Inbertsio handia da eta askotan ez dator bueltan, batez ere euskaraz argitaratzen denean”.

Yorick espazio gisa existitzeak banatzaileekin eta antzerki titulu gutxi batzuk soilik dituzten argitaletxe handiekin harremana erraztu die, oraindik Internet bidez soilik funtzionatzen duen denda batek zailtasunak izan baititzake alde horretatik. Gerrikabeitiaren iritziz ez luke horrela izan behar: “Funtzionamendua berdin-berdina da, baina Internet



Yorick liburu dendaren bezeroek oso argi izaten dute zein libururen bila dabilzan. Askotan dendaren eskaintza hobetzen laguntzen dute bezeroek euren eskariekin.

oraindik ez da horren ezaguna eta espazioa edukitzeak seriotasuna ematen du”.

Uzta propioa

Yorick liburu dendan topatu litezke Artezblai argitaletxeak euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu dituen liburuak. Lantaldekoek aipatu dutenez liburu bat aukeratu eta kaleratzea erabakitzerakoan ez dago irizpide erabatekorik, liburu bakoitzak bere istorioa dauka, eta edonola ere, normalean egoten den balizko materialaren kopurua ez da horren zabala. Argitaletxeak euskal sortzaileen lanak publikatzea izan zuen hasieran xede eta oinarri, baina denborarekin gaztelaniazkoek ere lekua hartu dute, interesgarriak iruditu zaizkien aukerak sortu izan direlako. Haien artean azkena Angelica Liddell autore ezagunaren lan berria, *Belgrado*.

Euskarazko testuei dagokionez, azpimarragarria da Serantes lehiaketarekin duten hitzarmena: lan sari-tuak kaleratzen ditu Artezblai. Egon badaude beste hainbat lehiaketa ere, baina Yorickeko arduradunek azaldu dutenez zaila izaten da liburu horiek topatzea, ez baitira gehiegi banatzen. Serantes lehiaketaren kasuan merkatura zabaltzeko aukera ematen diote lanei. Azken tituluen artean, besteak beste, Jokin Oregiren *Ni naiñ Hector, ni bakarrik* dago adibidez.

Lehiaketatik at, Antzerkiola Imaginarioaren formatu handiko lau testu argitaratzea ekarri dute gogora berrien artean. “Pentsatzen egon ginen euskal dramaturgia egiten duen konpainia izanik, estetikoki nahiko zehatza eta estilo eta pertsonalitate aldetik oso markatua, interesagarria izan zitekeela paperean edukitzea ere. Nahiko obra poetikoak dira, irakurtzeko egokiak”.

Nolanahi ere, ez da erraza egun ohol-tza gainera eramaten diren testuetatik paperera pasatzeko aproposak izan daitezkeenak

Antzerki zalearentzat irla baten modukoa da Yorick, baina bertako langileek, zer edo zer erromantikoa baino, beraien lanbidea ikusten dute dendan

aukeratzea. Gerrikabeitiaren esanetan paperean testu batek indarra galdu dezake ohol-tzan oso estetikoak izan arren; edo alderantziz. Relañok azaldu duenez egile gehienak euskal antzerkigileak dira: “Ez dira idazleak, izatekotan antzerki konpainiako kide ikusten dute beren burua. Patxo Telleriaren kasuan adibidez berak idazten ditu gero bere konpainiarekin martxan jartzeko ikus-kizunak. Gure ustez oso idazle potentea da, eta gainera gero paperean ere irabazten du, beste dimentsio bat hartzen du”. Euskal idazle gutxi bidaltzen dizkiete bestela orijinalak, normalean erakargarriagoa izaten zaie-eta literatur lehiaketan bidea hautatzea.

Antzerkiari buruzko lan teorikoei dagokionez euskaraz ez dago apenas ezer. Gerrikabeitiaren esanetan asmoak badaude itzulpenak egiteko. Material didaktikoa izango litzateke, ikastoletan banatzeko. “Ez dago antzerkia euskaraz ikasteko aukerarik, antzerki testuak euskaraz gutxi daude, eta formaziozkoak zero”.

Hutsune hori betetze aldera Artezblai argitaletxeak berak antzerki testu teorikoen lehiaketa zabaltzen du aurten aurreneko aldiz, euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztzen diren lanentzat. Saria: liburua argitaratzea. Testuen bildumaz gain Artezblai badiu teoriarekin lotuagoak daudenak ere, eta haietan aurkituko dute lekua lan sarituek.

Antzerki zalearentzat irla baten modukoa da Yorick, baina bertako langileek, zer edo zer erromantikoa baino, beren egunerokotasuna ikusten dute bertan, lanbidea. “Yorick existitzen da esfortzu handia dagoelako atzetik, bestela honi eustea oso utopikoa da, guztia aurrera doa proiektu oso bat dagoelako”.

Izan antzez-lana taula gainean muntatzeko, ala buruan bertan irudimenaren bidez dastatzeko, antzerki zaleak badu zeri heldu Yoricken. ■



GASTEIZ

Gasteiz hiribidean, irailaren 26tik urriak 12ra arte

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!